

ONDARROA

2014-2015





MATRIKULA EGITEKO informazioa

Hiru hilabeteko ikastaro bakoitzaren **prezioa: 5-10€**. Oinarrizko errenta jasotzen dutenek eta 20 urtetik beherako andra gazteek, oster, %50eko deskontua izango dute.

Plaza-kopurua: talde bakoitzeko, gutxienez, 7 lagun. Ikastaro bakoitzeko lagun-kopurua bete ahala itxi egingo da matrikulazioa; bestela, ikastaroa hasi arte egin daiteke matrikula.

Izena emateko: matrikula-fitxa bete eta ordainketa egin behar da. Goizetan, Udal Diru-Bilketa bulegoan (Kantoipe 3an) egiteko aukera egongo da, eta arratsaldeetan, **Etzelilan** (Artibai 3, 2. pisua). Matrikula ez da onartuko matrikula-fitxa bete eta ikastaroa ordaindu arte. Eta behin matrikula eginda, baja emanez gero, ez da dirurik itzuliko.

Emakumeentzako Jabekuntza eskolako ikastaroak ETXELILAn egingo dira. Bertara hurbildu matrikula egiteko eta informazio gehiago jasotzeko.

Zerbitzu berria

Ikasturte honetan HAURTZAINDEGI ZERBITZUA erabiltzeko aukera eskainiko da ikastaro guztietarako. Horretarako ezinbestekoa da izen emate orrian adieraztea edota astebete aurretik jakinaraztea. Zerbitzu hori TXIRRIMORRASKI taldearekin kudeatuko da.

Abortua ez dela gure eskubidea???

Tururu!!!

Irakaslea: FeministAlde

Abortatzeko eskubidea mugimendu feministaren aldarrikapen historikoa da, alabaina, lortutako eskubide bat izan beharrean etengabeko erasoak pairatzen ditu. Horren aurrean, Euskal Herriko mugimendu feministak tinko erantzun du emakumeen erabakitze eskubidearen alde eta lege-aldaketa atzerakoien kontra. Ikastaroaren alde teorikoan izango dugu aukera abortatzeko eskubidearen aldeko borroka feministaren bilakaera historikoa ezagutzeko, eta bestetik, alde guztiz praktikoan, ahalbidetuko dira estrategia feministak eta aldarrikatze ekintzak ezagutzeko eta horietan parte hartzeko espazioak.

8 ordu, 4 orduko 2 saio.

Matrikula: 5 €

Egutegia: Urriak 24-25 (barikua eta zapatua)

Ordutegia: Barikuan 17:00etatik 21:00etara eta zapatuan
10:00etatik 14:00etara

Feminismoaren gaur egungo panorama teorikoan kokatzeko mapak

Irakaslea: Tere Maldonado Barahona
(Militante feminista eta Filosofia irakaslea)

Gaur egun, ekarpen feministak inoiz baino anitz eta aberatsagoak dira. Hasiera bateko etiketa eta definizioak "berdintasunaren aldeko feminismoa" edo "ezberdintasunaren aldeko feminismoa", "feminismo marxista" edo "liberalen feminismoa", aldatuz joan dira urteetan egun bizitzen ari garen mapa konplexura heldu arte. Ikastaroan zehar mapa hori ulertzeko nondik norakoei helduko diegu. Honetarako, aurretiaz materiala eskainiko da parte hartzaileentzat lanketa pertsonala burutu eta eztabaidak bideragarriago izan daitezen.

12 ordu, 6 orduko 2 saio.

Matrikula: 5 €

Egutegia: Urtarrilak 24 eta Apirilak 25 (zapatuetan)

Ordutegia: Zapatuan 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik
18:00etara



Ezagutu zure gorputza, zaindu osasuna

Irakaslea: Patricia Verdés Giménez
(psikologoa eta berdintasunean aditua)

Jakin badakigu emakumezko gorputza dugula... Eta zer esan nahi du horrek zuretzat? Badakigu gure gorputzean hainbat prozesu garatzen direla... zuk antzematen al diezu prozesuoi? eta badakizu nola eraman?. Eta zer dakigu gorputz bakoitzeko formen gainean, zer? Bada, ez dagoela igualik, nork bereak... Eta zuk zenbateko estimua diezu zuk zure forma horiei? Badakigu guretzako osasun arreta, oro har, eredu maskulinoetatik eraikia dela... Nola zaintzen duzu zure burua? zure neurrira egindako atentzioa bilatzen? Kontu horietan guztietan datza, hain zuzen, gure osasunaren gako asko, gorputz femeninoa duen osasuna. Espazio honetan osasun praktikak zalantzan jarriko ditugu, gure gorputzen beharretara egokituak probatu eta ikertzen saiatuko gara. Laguntza-bide hauek izango ditugu: ezagutza, praktika eta baliabide ez andozentrikoak, emakumezkoen osasunaren aldeko mugimenduek sortuak (gomendatzen da jantzi erosoak ekartzea)

Sabemos que nuestro cuerpo es de mujer... ¿sabes qué significa esto para ti? Sabemos que en nuestros cuerpos femeninos se dan distintos procesos... ¿sabes reconocer y cuidar estos procesos? Sabemos que las formas de cada cuerpo son únicas... ¿sabes apreciar las tuyas propias? Sabemos que la mayor parte de la atención a nuestra salud está hecha desde un patrón masculino... ¿sabes cuidarte y buscar atención hecha a tu medida? Entre estas cuestiones se juega gran parte de nuestra salud, una salud que toma cuerpo en femenino. En este espacio nos cuestionaremos, experimentaremos e investigaremos para generar prácticas de salud a la medida de nuestros cuerpos. Para ello nos apoyaremos en conocimientos, prácticas y recursos no androcéntricos gestados desde el movimiento de salud de las mujeres. (se recomienda traer ropa cómoda).

24 ordu, 3 orduko 8 saio.

Matrikula: 10 €

Egutegia: barikuak Urriak 31, Azaroak 14, Abenduak 12, Urtarrilak 16, Otsailak 13, Martxoak 13, Apirilak 17, Maiatzak 8.

Ordutegia: 16:30etik 19:30era.

Gazteleraz izango da.

- Maiteminak Euskal literaturan
- Diskurtso autobiografikoak Euskal literaturan
- Euskal musika larrutuz: gorputz adierazpenak eta gorputz irudikatzeak

Hiru ikastaro hauen metodologia praktikoa eta parte-hartzailerik izango da. Literatura testuen irakurketa eginez, parte-hartzailerik eta eztabaida bultzatuko dira (dagokion kasuan musika testuen irakurketa nahiz musika eszenaren inguruko irudi eta bideoak komentatuz).

AUKERA DAGO IKASTARO BATEAN SOILIK IZENA EMATEKO EDO, NAHI IZANEZ GERO, "EUSKAL LITERATURA" IKASTARO MULTZOAN IZENA EMATEKO (10 €):

Ikastaro bakoitza: 8 ordu (4 orduko 2 saio).

Ordutegia: barikua, 17:00etatik 21:00etara eta zapatuan, 10:00etatik 14:00etara.

Irakaslea: Iratxe Retolaza Gutierrez (Literatura irakaslea)

Irakasleak jarraibideak eta materiala emango ditu parte hartzaileek euren kabuz lanketa egiteko.

Maiteminak Euskal literaturan

Galdera hauetariko zenbait erantzuten ahaleginduko gara irakurketa-talde honetan: nola irudikatu dira maiteminak euskal literaturan? Maiteminaren inguruko topikoak iraunarazteko gune izan al da euskal literatura? Euskal literaturan maiteminaz jarduteko diskurtso berriak proposatu al dira? Begirada feministak maiteminaz jarduteko zer diskurtso garatu du literaturan? Irakurleok nola eraikitzen ditugu maitemin literarioaren eta maitemin gorputzuaren arteko zubiak? Testu literarioak baliatzen al ditugu geure maiteminak ulertzeko/ interpretatzeko/ eraldatzeko? Bidegurutze horretan, literaturak maiteminaren inguruko irudiak, sinboloak eta leloak nola eraiki dituen aztertuko dugu, betiere begirada feminista gidarizat hartuz.

Egutegia: Azaroak 21-22

Matrikula: 5 €

Diskurtso autobiografikoak

Euskal literaturan

Galdera hauetariko zenbait erantzuten ahaleginduko gara irakurketa-talde honetan: nolako diskurtso autobiografikoak garatu dira euskal literaturan? Nola baloratu eta interpretatu izan dira ekarpen autobiografiko horiek? Egilearen genero-erakuntzak eraginik izan al du autobiografia horien harreran? Bidegurutze horretan, diskurtso autobiografikoek euskal literaturaren esparruan nolako garapena eta lekua izan duten aztertuko dugu, betiere begirada feminista gidaritzat hartuz.

Egutegia: Otsailak 6 eta 7

Matrikula: 5 €

Euskal musika larrutuz: gorputz

adierazpenak eta gorputz irudikatzeak

Galdera hauetariko zenbaiti erantzuten ahaleginduko gara irakurketa-talde honetan. Besteak beste, honako galdera hauei: gorputzaren errepresentazio-bide anitz al dira euskal musikan? Gorputzaren errepresentazio horiek zein genero ikuspegi zabaltzen dituzte? Nola eraikitzen du musikariak bere gorputzaren errepresentazioa? Nola eraikitzen du musikariak hartzailearen/ entzulearen/ ikuslearen gorputzaren errepresentazioa? Hartzaileok nola eraikitzen dugu geure gorputzaren eta agertokiko gorputzaren arteko harremana? Euskal musikara hurbiltzeko bi begirada gurutzatuko ditugu irakurketa-saio hauetan: batetik, gorputzaren eraikuntzaren eta errepresentazioaren inguruko diskurtsoak eta praktikak aztertuko ditugu; eta bestetik, genero-(des)eraikuntzaren inguruko gogoetak izango ditugu gidari.

Egutegia: Maiatzak 15 eta 16

Matrikula: 5



Rap tailerra

Irakaslea: Furia

(Rapera, feminista, gizarte hezitzailea eta musikoterapian hezitzailea)

Rap musika mota, Bronx (USA)-ko hegoaldean sortu zen, eta afrokaribeko eraginarekin goxatu zen. Hip Hop kulturaren ahozko kultura edo kanta da. Rapak hainbat adierazpide ditu, baina, sortzeko momentutik beretik erabateko lotura izan du orduko testuinguruko pobrezia eta indarkeriarekin. Tailer honen proposamena da gure testuinguru espezifiko lantzea, alegia, emakumezkook aurre egin behar diogun hori landu, eta,aldi berean, Rapa baliatzea emakumeon tokiko egoera berezi hori ulertzeko eta salatzeke. Animatuko zara nesken artean Rap egitera?

El Rap nació en el sur del Bronx (USA), en la década de los años 70 y se nutrió de las influencias afrocaribeñas. Se trata de la parte oral o cantada de la llamada cultura "Hip Hop". A pesar de las diferentes maneras de hacerlo, el Rap se asocia esencialmente con la pobreza y la violencia que subyace al contexto histórico que lo vio nacer. En este taller trabajaremos el contexto específico que enfrentamos las mujeres, y usaremos el Rap como instrumento para aprender y denunciar. ¿Te apetece hacer Rap entre chicas?

28 ordu, 2 orduko 14 saio.

Matrikula: 10 €

Egutegia: martizenetan abendutik martxora

Ordutegia: 17:00etatik 19:00etara.

Gazteleraz izango da

Gure herria eraikitzen

Irakaslea: Zuriñe Burgoa

(Comunion arkitektoa, HiriaKolektiboko partaidea)

Gure Ondarroa antolatuko duen Plan Orokorra martxan dago. Dokumentu horrek emango du aukera, hemendik aurrera, herriaren izaera, eta beraz, herritarron bizitza eta bizipenak definitzeko. Gure proposamena da Ondarroa aztertu eta proposamen berriak bilduko dituen tailer bat egitea. Parte hartzaileen eguneroko bizitzatik abiatuta, guztion esperientziak/ beharrak batuko dituen mapa kolektibo bat osatuko dugu. Emakumeon esperientzia, hausnarketa, behar eta nahi anitzak bilduko ditugu, Plan Orokor berriaren gidalerroak izateko.

8 ordu, 2 orduko 4 saio.

Matrikula: 5 €

Egutegia: Apirilak 21eta 28, eta Maiatzak 5 eta 12

Ordutegia: 18:00etatik 20:00etara.

Feminismo beltza

Irakaslea: Jeanne Roland Dacougna Minkette
(Feminista, senegaldarra eta Garaipen elkarteko kidea)

Munduko emakume askok ez zuen bere burua ikusi feminismoaren hasierako aldarrikapenen baitan. Sexu/genero paradigmatic haragoko paradigma bat behar zuten, beste opresio-sistema batzuk kontuan izango zituen eta horren alde entzunarazi zuten euren ahotsa. Tailer honek proposatzen digu ibilbide bat feminismo beltzen historian barrena, azpimarratuz, batez ere, zer ekarpen egin dioten haiek teoria eta praktika feministari. "Black Feminism" eta Feminismo post-kolonialak izango ditugu protagonista nagusiak.

Muchas mujeres no se vieron reflejadas en las primeras propuestas del feminismo. Tuvieron que alzar la voz para reivindicar un paradigma que les incluya y que tenga en cuenta otros sistemas de opresión que afectan a las mujeres más allá del sexo/género. Este taller pretende ser un recorrido por la historia de lo(s) feminismo(s) negro(s) y sobre todo haciendo hincapié en su aportación a la teoría y práctica feministas. Nos centraremos fundamentalmente en el Black Feminism y el Feminismo Postcolonial.


8 ordu, 4 orduko 2 saio.

Matrikula: 5 €

Egutegia: Urtarrilak 30 eta 31 (barikua eta zapatua)

Ordutegia: Barikuan 17:00etatik 21:00etara eta zapatuan
10:00etatik 14:00etara.

Gazteleraz izango da



Emakumeak kamera atzean

Irakaslea: Lara Izagirre (Zinemagilea)

Gidoilari, zuzendari, aktore... izan nahi? Ikus-entzunezko tresnak erabiltzeko beharrezkoak diren ezagupenak gerturatzeko asmoz, emakumeak kameraren atzean ikastaroa burutuko dugu Etxelilan. Parte hartzea eta elkarlana beharrezkoak dira ikastaro praktikoa honetan. Emakumeek film labur bat ekoizteko aukera izango dute: gidoia idaztetik, grabaketa eta edizioarte bidaiatuko dugu, zinemaren munduan gure lehen urratsak emanez film labur baten grabaketaren bidez!

21 ordu. 2,5 orduko 7 saio

Matrikula: 10 €

Egutegia: Urtarrileko eguenak, otsailak 5; grabaketa martxoan (asteburuan) eta edizioa martxoak 12 eta 19

Ordutegia: 18:00etatik 20:30era.

 Emakumeen nortasuna eta subjektibotasuna

Autodefentsa feminista

Irakaslea: Pili Álvarez Moles (feminista ekintzailea)

Autodefentsa feminista ez da soilik teknika fisiko batzuk ikastea nola erantzun jakiteko kalean, gauaz, eraso bat pairatuz gero. Harago doa, egunean-egunean gertatzen diren eraso sexistak identifikatzea dugu erronka, elkarrengandik ikasi eta bizitzako jarrera bat geure egitea, hortxe dago gakoa, emakumeok defendatzeko ahalmena dugula azpimarratuaz. Azken finean, ahalduntze prozesu bat da, bizitzeko jarrera bat. Animatu! (Gomendioa: arropa erosoekin etorri.)

12 ordu. 4 orduko 3 saio

Matrikula: 5 €

Egutegia: Maiatzak 29-30 (barikua eta zapatua)

Ordutegia: Barikuan 17:00etatik 21:00etara eta zapatuan 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.



Herriko emakume elkarteak antolatutako ikastaroak

Paperaz egindako grabatua

Irakaslea: Nerea Unanua

(Arte Ederretan lizentziatua eta masterra Pinturan)

Tailer praktiko honen bitartez, arte munduko tresna berriak nola erabili erakusteko tarte bat eskainiko zaie parte hartzaileei. Tresna berrien erabilpena ikasiz, emakumeen autonomia artistikoa landu eta garatzea izango da gure helburua. Papera hartuko dugu oinarri aurtengo tailerrean. Material hau erabilia



ikasiko dugu nola egin ezerezetik artelan bihurtzerainoko bidea bakoitzaren estilo, burutapen eta bideak zabalduaz. Egindako lanen erakusketa bat jarriko da.

21 ordu, 3 orduko 7 saio.

Matrikula: doan

Egutegia: Azaroa eta abenduko eguenetan

Ordutegia: 17:00etatik 20:00etara.

Antolatzailea: 7 emakume en movimiento.

Andrantzako perkusio ikastaroa

Irakaslea: Arantxa Vicedo Rubio (Musikari eta konposatzailea)
eta Ainara Sarasketa Alberdi (Perkusio jolea)

Andrabanda Feministako parte izan nahi baina orain arte ez duzu aukerarik izan? Lotsa sentitu duzu baina gogoekin zaude? Animatu probatzera eta gero erabaki jarraitu ala ez. Eskatzen den gauza bakarra: beste emakume batzuekin batera gure eskubideen defentsan eragitea. Etorri Andrabandak antolatutako tailerrera; musika, abesti eta erritmo berriak ikasiko ditugu.



12 ordu, 4 orduko 3 saio.

Matrikula: doan

Egutegia: zehaztu barik. Informazio zabalduko da.

Ordutegia: 10:00etatik 14:00etara.

Antolatzailea: Andrabanda feminista.

2014

iraila

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

urria

		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

azaroa

					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

abendua

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

2015

urtarrila

			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

otsaila

						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	

martxoa

						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29

apirila

		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

maiatza

				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

ekaina

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

Parte hartze gunea

Jabekuntza Eskolaren barruan espazio berri bat zabalduko da. Hilean behin (azken barikuetan) eta eskolako ikasleek bultzatuta, literatura, irakurketa eta eztabaida kritikoa lantzeko saioak burutuko dira ikuspegi feministatik.

Parte hartzera animatzen bazara,
lehen deialdia: Irailak 27, 17:00etan

Informazio gehiago jasotzeko:



Ordutegia:

arratsaldez, matitzenetik barikura
Artibai 3-2. Pisua ☎ 946 134 008
etxelila@ondarroakoudala.net

Ondarroako Udal Berdintasun saila



Ordutegia:

goizez, astelehenetik barikura
Musika plaza z/g ☎ 946 833 670
emakume@ondarroakoudala.net
<http://www.ondarroa.eu>



Berdintasuna Ondarroa